

HERNANIK kronika

2003 urtea
Otsailak 12
Asteazkena
Alea: 692
www.hkronika.com

Mobilitate Planak trafiko antolaketaren efikazia haunditzea proposatzen du

■ Efikazia haunditzearekin batera, marko estrategikoaren barruan proposatu du automobilaren inpaktu negatiboak arindu eta kotxeari alternatibak bultzatzeko.

LEBER Planifikazio eta Ingenieria enpresak Hernaniko Mobilitate Plana egin du, Udalak aginduta. Diagnosia eginda, LEBERek hiru estrategia nagusi planteatzen ditu egoera hobetzeko: 1) trafiko sistemaren efikazia haunditzea, 2) automobilaren inpaktu negatiboar arintza, eta 3) beste transporte moduak bultzatzea.

Konklusioak

Azterketa horretan azaltzen diren konklusioen arabera, aurreneko puntuari dio Hernanik inguruko herrien joera beretsua daramakiela: herria jendez mantendu egiten da, geroz eta unitate familiar gehiago dago, eta motorizazioa asko hazi da. Horrekin batera, konklusioek azaltzen dute Hernanin Kaxko inguruaren jende eta lanpostu kontzentrazioa dagoela, batez ere zer-

APARKALEKUAK

Estudioak dio Hernani aparkaleku z ondo dagoela, eta Kaxkoan rotazio sistemen bat jartzea proposatzen du, komertzioaren mesedetan.

bitzu eta merkataritzaren bueltan. Estudioaren hirugarraren konklusioa da Hernaniko mobilitatea Donostiarako joerak markatzen duela, baina, hala ere, jende asko ibiltzen dela oinez (hernaniarrek herri barruan egiten dituzten baijleen % 73 oinez egiten dituzte), eta estudioak dio elementu hori



Mobilitate Planak dioenez 4 hernaniarretik 3k oinez egiten ditu herri barruko bideak.

zaindu eta bultzatu beharreko dela. Era berean, estudioak azaltzen du oinez egiten litzkeen bide asko kotxez egiteko joera dagoela, eta komuni dela hori mugatzea. Hernanin egunero 2.000 biaje egiten dira kotxez kilometro bat baino motzagoak.

Trafiko intentsitatea ere kontuan hartu beharreko elementua da. Herriko zenbait puntutan (Karabeleko Zubian, Galarretan,...) 800 kotxe pasatzen dira orduko, eta estudioaren arabera hori da araten.

zorik ez izateko muga.

Apar-kalekuei dagokionez, Hernani beste herriak baino hobeto dagoela dio LEBERen estudioak. Hala ere, bi ondorio hauetara iritsi da azterketa: 1) bertakontzentrat aparkamendu eskaientza ona da, baina, zaindu beharreko, geroz eta automobil gehiago dagoelako; 2) Kaxko inguruak rotazio sistema bat eskatzen du, eta horrek mesede egingo lioke zona horretako merkataritza eta aktibitateari. □

PROPOSAMENAK ETA HELBURUAK

- 1) Jendea oinez ibiltzeko erreztasunak eman behar dira, bide seguruak, erosoak eta atsegina jarriaz
- 2) Herriko aktibitate zonak eta oinez ibiltzeko bideak elkarrekin ondo komunikatu.
- 3) Oinezko ibiltokiak lasaitu eta babesteko neurriak hartu.
- 4) Herri barruan bide motzak egiteko kotxeak har-
- tza penalizatu.
- 5) Zentroan rotazioko aparkamendua bultzatu.
- 6) Trafiko aldaketa Kaskotik berteneko kaleak babeste aldera.
- 7) Transporte publikoa bultzatu geltokietara joateko bideak erraztuta.
- 8) Trafiko sarearen optimizazioa kote neurriak hartu.

BESTE DATU BATZUK

■ Lan-egun batean 61.100 biale izaten dira Hernanin: % 27 oinez, % 17 transporte publikoan, eta % 55 kotxean. Hernanik kanpora, baijleen % 68ak kotxez egiten dira, eta % 32 garaio publikoan.

■ Herritarren % 47ak herrian bertan lan egiten dute; % 28ak Donostian, eta gainerakoek beste herriean. Hernanira lanean datozeni dagokionez, % 40 Donostiatik dator, eta % 8na Urnieta, Errenteria eta Andoaindik.

■ Antziolako aldapa eta Karabeleko Zubia dira trafiko intensitate gehieneko bi puntuk: 800 kotxetik gora orduko, ordu puntutan, maneju litkeenaren muga-mugan.

■ Istripu gehieneko zonak dira Urbieta kalea, Latsunbe eta Zinkoenea.

■ Karga-deskargan, beharrezko da denbora mugak errespetatzea eta ibilgailu autorizatuek bakarrik erabiltzea.



Victor Goikoetxea margolaria.

Victor Goikoetxea pintoreak erakusketa jarriko du Biterin

VICTOR Goikoetxea margolari hernaniarrak pintura erakusketa jarriko du biharki aurrera Biterin. Goikoetxeak *Trompe d'oeil* erara jarriko du erakusketa eta otsailaren 27 arte egongo da zabalik, 18:00etatik 20:00ak arte.

Mendinueta eta Karrere psikologoek zahartzeari buruz hitzaldia emango dute gaur Biterin

BIDEXKA Psikologia taldeak antolatuta, gaur arratsaldeko 18:00etan, zahartzeari prozesuari buruzko hitzaldia izango da Biterin. Hitzaldia Koro Mendinueta eta Maite Karrere psikologoek emango dute eta honako galdera eta kezka hauen inguruaren hitz egingo dute: *zer da zahartzeari buruz kultural? Nola hartzen dugu bizitzaren garai hori? Urte gehiagotan bizi, edo hobeto bizi?* Gaur, 18:00etan, Biterin. □

JUBILATU ETXEA

Kuota ordaintzeko epea zabalik dago

JUBILATU Etxeak adierazi du astelehena ezkerroztik zabalik dagoela urteko kuota ordaintzeko epea. Kuota 3 euro da. □

JTXASPE
ARRANDEGIA

Antziola 5 - Tel. 943 330 365
Mobila: 653 74 10 97
20120 HERNANI

ALTZUETA
TOLARE - SAGARDOTEGIA

Asteartetik Larunbatera irekita

Altzueta Sagardotegia S.L.
Osinaga Auzoa, 7 • 20128 Hernani
Tel./Fax: 943 55 15 02
e-mail: altzueta@altzuetasagardotegia.com

AMEGAR
etxe tresnak altzariak

Elektrogailuak TB - Bideoak - HI-FI - Opariak

Txirrita 15 Izpizua 27

Tel 943 551125 - Faxa 943 551603

DORRONSORO

OKINDEGIA

J.DORRONSORO OKINDEGIA, S.L.
Lizeaga, 7 943 33 36 18 -20120 HERNANI

Bertan egindako kalitatezko ogia

JOSEBA PAGAZAURTUNDUAREN KONTRAKO ATENTATUA



Kontzentrazioa Atsegindegin Joseba Pagazaurtunduaren kontrako atentatua salatzeko.

Peñacoba (PSE-EE): "Josebak bene-benetan defenditu zituen demokrazia eta askatasuna, eta biziarekin ordaindu du hori"

■ Astelehenean kontzentrazioa egin zen 'ETA ez' lemarekin, Joseba Pagazaurtunduaren heriotza ekarri zuen atentatua salatzeko.

EA, EAJ, PSE-EE, eta IU-EBk deituta, astelehenean kontzen-trazio isila egin zen Atsegindegin Joseba Pagazaurtundua hernaniarraren kontrako aten-tatua salatzeko. Kontzen-trazioa iluntzeko 20:00etan izan zen, eta pankartari eusten PSE-EE, EA eta EAJko kargu eta zinegotziak izan ziren.

Joseba Pagazaurtundua zena PSE-EEko militantea

zen, eta Pablo Peñacoba Hernaniko Sozialisten buruak esan zuen Pagazaurtunduak benetan defenditu zituela demokrazia eta askatasuna, eta hori biziarekin ordaindu behar izan duela. "Ezagutzen nuen Joseba, eta haren beti defenditu izan du askatasuna, adierazpen askatasuna eta demokrazia. CNTn ibili zen, eta Euskadiko Ezkerran gero.

Azkenean, bizia kendu diote askatasuna defenditzeagatik" esan zuen Pablo Peñacobak kontzentrazio ondorenean.

Gorputza errauatu

Joseba Pagazaurtunduaren gorputza Zorroagako tanatorioan egon zen, eta Polloen errauatu zuten gero. Familiak hala eskatuta, ez da bere aldeko hileta elizkizunik izan. □



Udaletxeko langile bat bota ematen, astelehenean izandako hauteskunde sindikaletan.

LABek irabazi ditu Udaletxeko hauteskunde sindikalak

■ LAB sindikatuak 5 delegatu atera ditu, eta ELAk 2 delegatu.


UDALETXEAN hauteskunde sindikalak izan ziren astelehenean eta LABek atera ditu delegatu gehiena. Denera 114 langilek zuten bota emateko eskubidea eta 98 pertsonak botatu dute. LABek 62 botu lortu ditu, botoen % 71, eta 5 delegatu atera ditu. ELAk 32 boto jaso ditu, botoen % 32, bi delegatu atera ditu.

Joxe Arrieta LABeko ordezkariak esan du emaitza positiboak direla. "Batetik, -esan

du Arrietak- gure sindikatuak irabazi ditu hauteskundeak Udaletxeen eta espero genuen delegatu kopurua lortu dugu. Bestetik, berriz, azpimarratzeko da subiranotasunaren aldeko indar sindikalak lortu dugula ordezkaritza eta CCOO ez dela aurkeztu."

ELAk orain arte ez zuen delegaturik. Aurten bi atera ditu, eta % 29 igo da bototan. ELAk azpimarratu du sindikatu horrek oso pauso haun-

dia eman duela, eta azaldu du beste bi bota bakarrik falta izan zaizkiola hirugarren delegatua ateratzeko. Era berean, ELAk nabarmendu du LAB 7 delegatutik 5era jeitsi dela, eta botoen % 16 galdu duela. Konfiantzazko bota eman izana eskertzeaz gain, ELAk adierazi du datozen 4 urteak ez direla xamurrak izango, baina, langileek sindikatu horren "babesa, lana eta konpromisoa izango dituztela". □



Ate-joka taldeak etxebizitzarekin lan egiten duten zenbait sektoreetan protesta ekintzak egin ditu.

ETXEBIZITZA

'Ate-joka' taldeak manifestazioa deitu du etxebizitza eskubidea dela aldarrikatzeko

■ Manifestazioa otsailaren 20an izango da, 19:00etan.

ATE-JOKA taldea etxebizitza pertsonen eskubide bat gehiago dela konsideratzen duen taldea da, eta errebindikazio hori zabaltzeko zenbait ekimen egin ditu azken hilabeteotan.

Aurrera begira, berriz, bi iniziatiiba bultzatuko ditu, Ate-joka taldeko ordezkariak Kronikari adierazi diotenez. Batetik, otsailaren 20rako (osteguna), manifestazio bat deitu du espekulazioa salatu eta etxebizitza eskubide bat dela aldarrikatzeko. Manifestazioa arratsaldeko 19:00etan da eta Gudarien plazatik aterako da. Bestetik, Ate-joka

taldeak Udalari proposatuko dio etxebizitzaren gaia bideratuko duen batzorde berezi bat sortzea.

Ate-joka taldeak "etxebizitzaren egoeran erantzun-kizunak dituzten erakundee-tan" protesta ekintzak egin izan ditu: basketxeetan, promotoreetan, inmobiliarietan eta abar. Horretaz gain, 997 zenbakiarekin kanpaina bat egin zuen Ate-joka taldeak Hernanin zenbat etxe huts dauden zabaldu eta herriko egoera azaltzeko. Horrekin batera, etxebizitzari buruzko hitzaldi bat ere antolatu zuen Biterin. □

ESKERTZA

Kandelaria Legarreta Huizi

(Miguel Zabala Juanikorenaren alarguna)

Otsailaren 2an hil zen



Kandelariaren senitartekoek eskerrak eman nahi dizkizuegu, egun hauetan gurekin egon zeratenoi eta hiletara etorri zineten guztioi.

GUZTIAGATIK ESKERRIK ASKO.

Hernanin 2003ko otsailaren 12an.

ZERBITZUAK

TELEFONOAK

- Taxiak: 943 550093
- Udalzaingoa: 943 333288
- DYA: 943 464622
- Autobusak: 943 556662
- Anbulatorioa: 943 006666
- Jokalari anonimoak: 943 331103

FARMAZIAK

- Egunez: Aizpuru Latxunbe Berri 11 ☎ 943 336077
- Gauze: Orue Lasarte. Jaizkibel plaza 2 ☎ 943 362652

IRAGARKI MERKEAK

Aireportuetako hegaldi KONTROLADOREA. AENAren konbokatoria. Ezinbestekoak: Diplomatura edo licentziatura. Ingelesa. ADOZ: 943 44 45 09

AUTOESKOLAKO IRAKASLE. Parorik gabeko lanbidea. Sarrera garrantzitsuak. Presta zaitez. ADOZ: 943 44 45 09

GUARDIA FORESTAL. Euskal Herriko parke eta erreserva naturaletan lan egin ezazu. Ezinbestekoak: Graduatura. Presta zaitez. ADOZ: 943 44 45 09

BONBEROAK. Euskal Herriko parkeetan egin ezazu lan. Lan baldintza bikainak. Ezinbestekoak: Graduatura. ADOZ: 943 44 45 09

TRANSPORTISTA. Transportean ibiltzeko behar den gaitasun tituloa lortu ezazu. ADOZ: 943 44 45 09

ADMINISTRARI AUXILIARRAK. Udaletarako deialdiak. Ezinbestekoak: Graduatura. Presta zaitez. ADOZ: 943 44 45 09

UDALTZAIN bezala lan egin ezazu Udaletan. Datozen deialdiararako. Ezinbestekoak: Graduatura. Presta zaitez. ADOZ: 943 44 45 09

Txofer, elektrizista, kontserje, operario,... Udaletan lan egin ezazu. ADOZ: 943 44 45 09

BANKU eta AURREZKI KUTXAAtarako auxiliarrak behar dira. Ezinbestekoak: B.U.P. Datozen deialdiararako. Presta zaitez. ADOZ: 943 44 45 09